

<p align="center">6. ERANSKINA: GAZTERIA SAILA</p>	<p align="center">ANEXO 6: ÁREA DE JUVENTUD</p>
<p align="center">6.3 AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI IKASTAROA BURUTZEKO HERRITARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.</p>	<p align="center">6.3 BASES ESPECÍFICAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA REALIZACION DEL CURSO DE FORMACION DE MONITORES/AS Y DIRECTORES/AS DE TIEMPO LIBRE.</p>
<p>1. Xedea.</p>	<p>1. Objeto</p>
<p>Deialdi honen xedea da 2007-2008 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa burutu duten herritarrentzako bekak emateko baldintzak arautzea.</p>	<p>Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión de becas para los/as arrasatearras que hayan realizado el curso de formación de monitores/as o directores/as de tiempo libre 2007-2008.</p>
<p>2. Onuradunak.</p>	<p>2. Personas beneficiarias</p>
<p>Arrasateko udalerrian erroldaturik, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin, dauden pertsona fisikoek eskatu ditzakete oinarrri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak.</p>	<p>Las subvenciones que se regulan a través de estas bases, podrán ser solicitadas por aquellas personas físicas que estén empadronadas en el municipio de Arrasate con un mínimo de un año de antigüedad.</p>
<p>3. Bete beharreko baldintzak.</p>	<p>3. Requisitos a cumplir.</p>
<p>1.- Baldintzak.</p>	<p>1.- Condiciones.</p>
<p>Dirulaguntza jasotzeko, baldintza hauek bete behar dira:</p>	<p>Para la percepción de la subvención se deberán cumplir los siguientes requisitos:</p>
<p>a) Arrasaten erroldaturik egotea, gutxienez ikastaroa urte beteko antzinatasunarekin.</p>	<p>a) Estar empadronada/o en Arrasate como mínimo con un año de antigüedad.</p>
<p>b) Beka lortzeko, ikastaroa gainditu eta Aisialdiko begirale edo zuzendari titulo ofiziala lortzeko betekizun guztiak betetzea beharrezkoa izango da.</p>	<p>b) Para poder obtener la beca, deberá superarse el curso y cumplir los requisitos necesarios para la obtención del título oficial de Monitor/a o director/a de Tiempo Libre.</p>
<p>d) Ikastaroa 2008ko urtean bukatu izana.</p>	<p>d) Haber finalizado el curso dentro del año 2008.</p>
<p>4. Aurkeztu beharreko agiriak.</p>	<p>4. Documentación a presentar</p>
<p>Eskabide ereduarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:</p>	<p>Junto con el modelo de solicitud, el solicitante deberá presentar la siguiente documentación:</p>

<p>a) Erroldatze ziurtagiria. Ziurtagiri hori Arrasateko Udalak egin behar duenez, ofizioz egiaztatuko da. Interesatuak, dirulaguntza eskaera aurkeztu duenez, datua egiaztatzeko baimena eman duela ulertuko da.</p>	<p>a) Certificado de empadronamiento. Como quiera que este documento ha de ser emitido por el propio Ayuntamiento de Arrasate, se comprobará de oficio, considerándose que al presentar la solicitud de subvención, el interesado autoriza la comprobación del dato.</p>
<p>b) Matrikularen ordainagiria.</p>	<p>b) Recibo de la matrícula.</p>
<p>c) Ikastaroa ematen duen aisialdi eskolaren ziurtagiria, eskatzaileak ikastaroa gainditu duela ziurtatzen duena.</p>	<p>c) Certificación de la escuela de tiempo libre que imparte el curso relativa a la superación del mismo por parte del/la solicitante.</p>
<p>5. Eskabideak aurkezteko epea</p>	<p>5. Plazo de presentación de las solicitudes</p>
<p>Eskabideak aurkeztu ahal izango dira irailaren 1etik urriaren 31era arte.</p>	<p>Las solicitudes podrán ser presentadas desde el 1 de septiembre hasta el 31 de octubre.</p>
<p>6. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.</p>	<p>6. Unidad administrativa encargada de la tramitación</p>
<p>Gazteriaren administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak.</p>	<p>Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Juventud.</p>
<p>7. Eskabideak baloratzeko irizpideak.</p>	<p>7. Criterios de valoración de las solicitudes</p>
<p>Bekaren zenbatekoa matrikula prezioaren erdia izango da.</p>	<p>El importe de la beca será la mitad del precio de matrícula.</p>
<p>8. Aurrekontua.</p>	<p>8. Presupuesto.</p>
<p>Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 2.000 € da, eta finantzatuko da “1.11.00.480.456.00.00– Gazteriako dirulaguntzak” kontu sailaren kontura.</p>	<p>El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 2.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria “1.11.00.480.456.00.00– Subvenciones de</p>
<p>9. Dirulaguntzak justifikatzea</p>	<p>9. Justificación de las subvenciones</p>
<p>Oinarri-arau espezifiko hauetako 4. artikuluan eskatzen diren agirien bidez justifikatuko dira dirulaguntzak; abenduaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.</p>	<p>Las subvenciones serán justificadas mediante los documentos requeridos en el artículo 4 de las presentes bases específicas, a presentar antes del 30 de diciembre.</p>

<p>10. Ordaintzeko era eta epeak</p>	<p>10. Forma y plazos de pago</p>
<p>Dirulaguntza emango da ordainketa bakar baten bidez, behin dirulaguntza ematea erabaki eta justifikatu eta gero, hil bateko epean.</p>	<p>La subvención será abonada, previa justificación, en un único pago, a partir de la adopción del acuerdo de concesión, en el plazo de un mes contado a partir de la justificación requerida.</p>
<p>11. Klausula gehigarria</p>	<p>11. Cláusula adicional</p>
<p>Oinarri espezifikoko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria.</p>	<p>En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria.</p>
<p>Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio.</p>	<p>Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.</p>